



Curriculuma

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

ARLOA: INGURUNEAREN EZAGUERA



LEHEN HEZKUNTZA



SARRERA

Ingurunea definitzean esan daiteke hainbat faktore, fenomeno eta gertaeraz osatutako multzo bat dela, pertsonak jarduten duten testuingurua osatzen duena, eta jarduerok, haiekin erlazionatzean, pertsonentzat esanahi bat izatea ahalbidetzen duena.

"Inguru" kontzeptutik desberdintzen da, inguruneak adiera orokorragoa duelako, eta, lehendabizikoa, berriz, pertsonak hurbilekotzat sentitutakoa eta hautemandakoa baino ez litzatekeelako izango, bizitza igaro ahala espazioan eta denboran hedatuz joan arren.

Giza jardueraren gertalekua izateaz gain, inguruneak jarduera hori baldintzatzen du, eta, era berean, jarduerak bera aldatzen du. Horregatik, ezaugarritzat dauka dinamikoa eta aldakorra izatea, eta horrek zaildu egiten du zehaztasunez esatea zein elementuk osatzen duten.

Lehen hurbilketan, banako osagaiak, subjektiboak eta bizipenezkoak nabarmenduko lirateke, eguneroko eta zuzeneko esperientziatik sortzen direnak, hain zuzen ere, hauteman eta horrentzat berehalako erreferentzia direnak. Baina, alde batetik, esan behar da pertsona jakin baten inguruan dagoen gertaera, faktore eta fenomeno multzoaren zati txiki batek bakarrik osatzen duela haren jarduerak esanahia hartzen duten ingurunea. Horren ondorioz, ingurunea eraikuntza pertsonal baten emaitza izango litzateke. Bestetik, pertsona jakin baten jarduerak baldintzatzen dituzten elementuak ez dira bakarrik hark hautematen dituenak; aitzitik, inguruneak ondoko inguru fisiko eta soziala gainditzen du, bai espazioan bai denboran. Horregatik, beste faktore, fenomeno eta gertaera batzuk ere barne hartu behar dira, banakoenez eta subjektiboenez gain, horiek ere eragina dutelako pertsonetan, eta, batzuetan zuzenkiago beste batzuetan baino, haien jarduerak baldintzatzen dituztelako.



Inguruneak, gainera, osagai sozial eta kultural bat dauka. Izan ere, osagai horrek pertsonen ezagutu beharreko hainbat alderdi, fenomeno eta gertaera zedarrituko lituzke, espazioan eta denboran gutxi-asko hurbilak edo urrunak izanda ere, beren gain har dezaten beren garapena, eta gizarteko kide eraginkor bihurtuz joan daitezten. Hala, eta osagai banakakoa eta subjektiboa gorabehera, ingurunea gizarte talde bateko kideek parketa dezakete, taldeak izan beharreko ezinbesteko ezaguerak aukeratuko bailituzke, eta ezaguerok, gainera, denboran barrena pilatutako eta kulturalki hainbat eratan, besteak beste, jakintza adarretan, balio sistemetan, araudietan eta abarretan antolatutako esperientzia kolektiboaren emaitza dira.

Ingurunearen Ezaguera arloak bi osagaiak kontuan hartu beharko ditu, banakako-subjektiboa eta sozio-kulturala, elkar aberasten dutelako, elkarri eragiten diotelako, eta paraleloki osatzen direlako. Hala, arloaren azken helburua da ikasleei laguntza ematea, errealitateaz, beren bizipenetatik, pertzepzioetatik eta irudikapenetatik abiatuta, pixkanaka gero eta ezaguera objektiboagoa eta partekatuagoa izan dezaten, errealitate hori ulertzeko, azaltzeko eta bertan jarduteko beharrezko tresnak emateaz gain. Inguruneak, halaber, sarrera izan behar du arlo guztietan, haren alderdi kultural eta sozialak eskolak zabaldu beharreko kultur jakintzak ematen dizkigulako.

Arlo hau, gainera, ingurumenaren ikuspuntutik uler daiteke, eta, horretara, inguratzen gaituena eta bizitzea ahalbidetzen diguna litzateke ingurunea, gizadiaren izate bera baldintzatzen duena. Alde horretatik, ingurumen heziketaren helburua ingurunearen kudeaketa zuzena egiteko hezte da, naturaren, gizartearen eta kulturaren arteko lotura estuak azaltzen dituen bidenabar.

Ikerketa psikopedagogikoak adierazten digu ikaste esanahitsua ikaste globalizatua dela, subjektuaren osotasuna barne hartzen duena, ikaste hori gertatzen den inguruarekin dituen harreman ugari eta konplexuetan ikasten baitu. Lehen Hezkuntzak hartzen duen zatian, bestalde, ikasleek, beste batzuek gain, zailtasunak dituzte pertzepzio globaletatik haragoko osotasun baten elementuak aztertzeko. Horregatik, beharrezkoa da pertzepzio global horiek



errespetatzea, ikaste prozesuaren abiapuntua diren aldetik, eta pixkanaka hurbiltze analitikoago bat sartuz joatea, ikuspuntu integratzailea begien bistatik galdu gabe.

Inguruneak, ezagueraren helburu gisa, ez dauka oinarri epistemologiko sendorik, eta oraindik ere indarrean daude beste jakintza adarren ekarpenak, bakoitzak bere ikuspuntutik, ulertze eta azaltze hobea lortzen laguntzen dutelako. Hala eta guztiz ere, ingurunearen ikasketak aldi honetan, ezagueraren esparruei eta jakintza adarrei dagokienez, izan behar duen ezaugarri integratzaile eta irismen murriztagoko horrek arloa Lehen Hezkuntzan ere egotea justifikatzen du. Horrenbestez, Ingurunearen Ezaguera arloak natur zientzien, gizarte zientzien, teknologiaren eta abarren ekarpenak jasotzen ditu, errealitatea ulertu eta interpretatzeko ezagutza tresnak eskaintzen baitituzte, beren baitan helburu izan gabe, eta adin horietako ikasleen pertzepzio eta irudikapenetatik hurbilago dagoen eta integratzaileagoa den helburu baten zerbitzura.

Azkenik, honako hauek izango lirateke Ingurunearen Ezaguera arloak gaitasun esparruen eskuratze eta garapenean egindako ekarpenak:

- **EZAGUTZA ESPARRUA.** Arloak laguntza ematen du arazo sozial eta zientifikoek konponbideak identifikatze, azaltze eta bilatzearekin zerikusia duten gaitasunak garatzeko, eta, aldi berean, oinarrizko kontzeptu batzuk pixkanaka eraikitzea ahalbidetzen du, inguru fisiko eta sozialeko fenomeno nagusiak kategoriatan sailkatu eta azaldu ahal izateko, hasierako ezagutza eskemak eta ikasketa jardueretan sar daitezkeen elementu errealak aurrez aurre jartzea oinarriz hartuta. Landu beharreko kontzeptu nagusien artean egongo lirateke espazioarekin eta denborarekin zein binomioekin zerikusia dutenak; hala nola, ingurune fisiko- ingurune sozial, banakako-sozial, bizidun-bizigabe eta giza jarduerak aldatutako natur elementuak. Arloak, gainera, ingurunearen azterketara hurbiltze zientifiko egitearekin zerikusia duten prozedurak eta jarduerak barne hartzen ditu: jorratutako gaiei buruzko hipotesiak eta aburuak formulatzea,



informazioak bilatzea, antolatzea, erlazionatzea eta bereganatzea, ikuspuntuak trukitzea eta aurrez aurre jartzea, malgutasuna norberaren azalpenekin, erlatibismoa, enpatia, kausa aniztasuna, zorrotasun metodologikoa... Horri guztiari gehi dakioke objektuen eta sistemen azterketan hastea; hala nola, objektu teknologikoen diseinuan, eraikuntzan, aplikazioan eta ebaluazioan.

- **OSASUN ESPARRUA ETA SENTSORIOERAGILEA.** Arloak esparru honetan egiten dituen ekarpen garrantzitsuenek zerikusia dute higie, elikadura eta gorputzaren zaintza ohiturak hartzearekin eta horien praktika autonomoarekin. Horiei autonomia pertsonalaren garapenari lotutakoak gehitzen zaizkie, eta, bai inguru fisikoaren ezaugarriak bai espazioaren eta denboraren gizarte antolaketaren ikastearen ondorioz, era autonomoan orientatzeko eta lekuz aldatzeko gaitasunak nabarmentzen dira. Bestalde, arloan proposatutako jarduera batzuk gaitasun higiarazleak bultzatuko dituzte, beste hainbati lotuta: psikomotrizitate fina, esku-garun koordinazioa, tresna soilen erabilera, horiek erabiltzean eta material, makina... jakin batzuekin lan egitean segurtasun ohiturak sortzea.
- **AFEKTIBITATEAREN ETA BALIO PERTSONALEN ESPARRUA.** Hizpide dugun arloak erraztu egiten du ikasle bakoitzaren ahalak eta mugak ezagutzeari eta haien kontzientzia hartzeari lotutako gaitasunak lortzea, eta, ondorioz, nor bere buruan konfiantza handiagoa, autoestimu handiagoa izateko bidea urratzen da. Laguntza ematen du, halaber, ikus dezaten banako izakiak direla, eskubideak eta beharrak dituztela, pertsona gisa duten duintasunaren kontzientzia har dezaten, beren sexua, arraza, kultura, gizarte egoera... edozein izanda ere. Elementuak ematen ditu sentitzeko kultura eta hizkuntzaren ikuspegitik askotarikoa den gizarte bateko kide direla, Euskal Herriko gizarteko kide hain zuzen ere, eta bertatik beren nortasunaren kontzientzia hartuz joan daitezen, jakiteaz eta behartsuagoak diren pertsonetikiko elkartasuna izateaz kezkatuta dauden munduko herritar gisa. Bestalde, arlo honetan egiten diren



proposamenek autokontrola, emozioen oreka eta ahalegintzeko ahalmena sustatzen dituzte, bai eta izadia gozatu eta errespetatzea ere.

- **KOMUNIKAZIO ESPARRUA.** Arloan landu beharreko prozedurek bide ematen dute informazioaren bilaketa sistematikoarekin, hura biltzearekin eta erregistratzearekin zerikusia duten gaitasunak garatzeko, dokumentuetan, kodeetan eta hainbat iturritan oinarrituta: ahozkoak, idatzizkoak, mapak, grafikoak, taulak, inkestak, galdetegiak, errealitatean zuzenean ikusitakoak, prentsa, IKTak (dokumentalak, filmak, telebista, irratia, Internet...). Bide ematen dute, halaber, informazioa landu eta jakinarazteko ahoz, idatziz, IKTak erabiliz... Bestalde, iritziak eta ikuspuntuak trukatzea, argudiatzea, eztabaida, iritziak eta emozioak adieraztea, adostasuna lortzea... sustatzen dira, eta horietan guztietan arloak bereizgarritzat duen hiztegia erabiltzen joan beharko da eta, gainera, besteari adi entzutearekin, haren mezuak interpretatzearekin, iritziak eta sinesmenak errespetatzearekin... zerikusia duten jarrerak garatu beharko dira.
- **GIZARTERATZE ESPARRUA.** Arloak ikasleei kide diren zein erreferentziatzat hartzen dituzten taldeekiko identifikazioa garatzen laguntzen die, eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute antolaketa egituren ezaguerari eta talde horien ohitura, tradizio eta formen balioespenari lotutako gaitasunek; hala nola, beste talde batzuen ezaugarriak ezagutzeko interesak, askotarikotasunaren kontzientzia hartzen den bidenabar. Gatazken konponketa bakezkoarekin eta demokratikoarekin zein esku-hartze arduratsu eta kritikoarekin zerikusia duten gaitasunak ere lantzen dira. Esku-hartze hori arloan egin daitezkeen proposamen guztiz ugarietan mamitzen da, eta lana taldean egin behar da, horrek dakarren guztiarekin: kontuan hartzea besteen ikuspuntuak, haien ekarpenak balioestea, ikuspuntuak eta trebetasunak ere integratzea, protagonismoa banatzea... Justiziari eta berdintasunari, antidogmatismoari, lanaren



zorrotasunarekin batera ñabardurak lantzeari... lotutako balioen inguruan garatu beharreko gaitasunek osatzen dituzte arloak esparru honi egindako ekarpenak.

- **EKINTZAILITASUNAREN ESPARRUA.** Beste esparru batzuetan aipatutako gaitasun batzuk, ikertzeko joera bultzatzearekin, hipotesiak eta aburuak formulatzearekin, informazioa bilatu eta tratatzearekin, errealitatea azaltzearekin, horrek planteatzen dituen arazo errazak konpontzearekin, aparatu soilak eraiki eta aplikatzearekin... zerkusia duten guztiak, alegia, arloak esparru honi egiten dizkion lehen ekarpenetako batzuk dira, sormena, ideiak gauzatzea, egindakoa eta jarraitutako prozesua ebaluatzea, egindakoa beste egoera batzuetan aplikatzea eta jardutearen zein ahalegintzearen aldeko jarrerak sustatzen dituztelako. Bestalde, norbera kide den taldeen ezagutzak, hala nola, oraindik oso oinarrizkoa izan arren, erakundeen eskumen eta funtzionamenduarenak, aukera ematen du aurretik ere aipatu den esku-hartzea lantzen hasteko.

ARLOKO GAITASUNAK

1. Gorputzaren ezagutzatik eta aukeretatik zein mugetatik eratortzen diren ohitura osasungarriak izatea eta gorputza zaintzea, banakako desberdintasunekiko (adin, sexu, ezaugarri fisiko, izaera eta abarrekiko) onarpenean eta errespetuan oinarritutako jarrera agertuta, eta osasuna gizakiaren zein taldearen ondasuna dela ulertuta, pertsonarengan zein inguruan bizi baldintza osasuntsuak garatzeko ekarpen eraginkorra egiteko.
2. Gizarte taldeen berezitasunak eta ezaugarriak ezagutzea, haien arteko desberdintasunak errespetatzea eta balioestea, eta errefusatzea horretan oinarritutako edozein bereizkeria mota, horietako kide izatea aintzat hartzeko, eta gainerako nortasun, kultura eta herriekiko errespetu jarrerak izateko.
3. Talde jardueretan parte hartzea, jokaera eraikitzailea, arduratsua eta solidarioa agertuta, eta norberaren zein besteen ekarpenak balioestea helburu komunaren arabera, komunitateari ekarpen solidarioa egiteko.
4. Gatazka dagoela aitortzea, eta desberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldeen barruan aldaketa faktore gisa erabiltzea.
5. Norberaren nortasuna osatzea, eta bai gauzak lortzeko, bai ahalegintzeko, bai nork bere burua hobetzeko motibazioa sustatuko duten estrategiak izatea, gizaki autonomo eta sozial gisa garatzeko.
6. Gizakiak ingurunean duen esku-hartzearen adierazpide batzuk aztertzea, eta era kritikoan ebaluatzea, oreka ekologikoa defendatzeko eta berreskuratzeko jarrera hartzeko eguneroko bizitzan, iraunkortasun eta kultur ondarearen kontserbazio parametroetan oinarrituta.
7. Inguru sozio-naturaleko elementu nagusiak identifikatzea, eta haien antolaketa, ezaugarriak eta interakzioak aztertzea, espazio esparru gero eta konplexuagoen kontrolean aurrera egiteko.
8. Ingurune sozio-naturaleko elementuetan denboraren joanarekin gertatutako aldaketak eta transformazioak ezagutzea,

eta aldaketa horien aldiberekotasun eta ondoriotasun erlazio batzuk ikertzea, kontzeptu horiek beste une historikoen ezaguerari aplikatzeko.

9. Ingurune sozio-naturaleko eta kultureko gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak interpretatzeko, adierazteko eta irudikatzeko kode zenbakizkoak, grafikoak, kartografikoak eta beste batzuk modu egokian erabiltzea.
10. Material, substantzia eta objektu batzuen oinarrizko propietateen ezagutza erabiltzea, proiektu, gailu eta aparatu soilak planifikatu eta egiteko, aldez aurretik ezarritako helburu batekin.
11. Informazioa bilatzeko eta tratatzeko estrategiak erabiltzea, aburuak formulatzea eta aburu horiek probatzea, irtenbide alternatiboak arretaz aztertzea eta norberaren ikaskuntza prozesuari buruz gogoeta egitea, inguruko elementu esanguratsuekin zerikusia duten zalantzak eta arazoak identifikatu, planteatu eta konpontzeko.
12. IKTak erabiltzea ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa, eta balioestea pertsonen bizi baldintzetan eta haien inguruan egindako ekarpena eta izandako eragina.



ARLOKO EDUKIAK

Ingurune natural, sozial eta kulturalaren ezaguera deritzon arloak aditzera eman nahi du beharrezkoa dela ikasleek, Lehen Hezkuntzako aldi honetan, ulertzea errealitatea osotasun bat dela, eta ez hainbat elementutan zatitutako multzo bat.

Errealitatea ez dago zatituta eta disezionatuta tankan itxiriko konpartimenduetan; aitzitik, osotasun bat da, eta horretako elementuak, bereziak eta bereiz daitezkeenak izanagatik, elkarren mendekoak dira. Gauza bera gertatzen da gizartearen zein horren historiako elementu, gertaera eta fenomenoekin. Gure ustez, pertsonen jarduerak gertatzen direneko testuingurua osatzen duten askotariko elementuen, faktoreen eta gertaeren multzoa da ingurunea. Ingurunea ez da bakarrik pertsonak diharduen gertalekua; pertsona bera ere haren zati da, eta bata zein bestea etengabeko interakzio jarraituan daude.

Ingurunea pertsonak, animaliek, landareek, elementu fisikoek, erliebeak, klimak, gizakiaren lanek eta eraikuntzek, masa hedabideek, gertaera historikoek, giza taldeek, gizarte ohitura eta usadioek... osatzen dute. Hitz batean, ingurunea osotasun bat da, elkarrekin erlazionatuta dauden, elkarren mendeko diren elementu natural eta sozialak multzo konplexu bat.

Pertsonarentzat, ingurunea habitat naturala, bizipenezko ingurua eta testuinguru esanguratsua da. Masa hedabideen eta informazioaren zein komunikazioaren teknologien eskuragarritasunak eta presentziak "hurbiltasun" kontzeptua aldatu dute, eta, hala, gaur egun, nahiko urruti dauden espazioak eta denborak bere inguru mentalaren zatiak dira. Beharrezko transposizio didaktikoak kontuan hartu beharko du osotasun gisa ulertutako errealitatearen kontzeptu hori, eta adin horietako ikasleen jakin-nahia eta ingurunea esploratzeko duten interesaz baliatu beharko dira. Haien praxia era subjektiboan eta esperientziaren bidez bizi izandakotik sozialki partekatutakoraino doa, eta globalena zein bereizgarriena denetik ingurunea eratzen duten osagai ugarietaraino. Subjektiboaren eta sozialaren, globalaren



eta analitikoaren dualtasuna estrategiatzat hartzen da ikasleek errealitatearen ezaguera gero eta partekatuagoa, arrazionalagoa eta objektiboagoa eraiki dezaten. Helburua da esperientzia aldi berean abiapuntua eta etengabeko erreferentzia izatea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Esperientzia hori aberastu egingo da pixkanaka-pixkanaka, inguruan duen ingurunearekiko interakzioaren bidez, gero eta hobeto uler eta azal dezan, eta mailaz maila prestatuz joango da hartan eta haren gainean era kontzientean, arduratsuan eta sormenezkoan jarduteko.

Arlo honek zientzia jakintzaren kontzeptuak eta prozedurak ekartzen ditu, eta, autonomia pertsonalean oinarrituta, edo gizarte taldeekiko identifikazioan, ekarpen positiboak egiten dizkie arazoak aztertu eta konpontzeko gaitasunei.

Epistemologiaren ikuspuntutik, arlo honek ez dauka oinarririk, baina hainbat jakintza adarrek, besteak beste, gizarte zientziek, natur zientziek, teknologiak eta ekologiak, bakoitzak bere ikuspuntu bereziarekin, errealitatearen ikerketa, kontzeptu multzoa, metodologia zientifiko espezifikokoak eskaintzen dituzte, beren ezaguerak eta tradizio akademikoa eskuratzeko.

Uste izan dugu jarrerazko eta prozedurazko edukiek gehiago jotzen dutela gaitasunak lortzera, kontzeptuzko edukiek baino. Hortaz, prozedura jakin batzuk ikastea eta zenbait jarrera hartzea lortu nahi dugu. Arloko gai guztiak garatzean lan daiteke horietako bakoitza. Prozedurak eta jarrerak hainbat gaisailetan errepikatzen dira. Horregatik, edukiak egituratzeko orduan, zenbait irizpideri jarraitu diegu.

Alde batetik, kontzeptuzko edukiak gai-sailetan antolatuta daude. Proposamen hori egungo lege-esparruan oinarrituta dago, eta adierazgarri soila baino ez da.

Bestetik, jarrerazko eta prozedurazko edukiak beraien eta kontzeptuzko edukien artean elkarrekikotasun zuzenik egon gabe daude banaka aipatuta, hainbat ikasgaitan behin eta berriz errepikatu behar gabe.

KONTZEPTUZKOAK

1. Gizakia, osasuna eta haren gizarte alderdia.
 - 1.1. Giza gorputza: morfologia eta erlazio, nutrizio eta ugaltze sistemak. Gorputz aldaketak: haztea, garatzea eta hondatzea.
 - 1.2. Pertsona banakako izaki gisa: Nortasuna eta autonomia pertsonala. Eskubideak eta betebeharrak.
 - 1.3. Pertsona izaki sozial gisa: Kide den taldeak, eta haietan duen esku-hartzea.
 - 1.4. Sexualitatea: Sexu nortasuna, sexu-gertaeraren dimentsio fisiologikoa, afektiboa, erlazonala eta plazerrezkoa. Sexuak parekatzea. Rol sexistak eta sexu bereizkeria.
 - 1.5. Banakoen eta gizartearen osasuna: prebentzioa eta higiena.
2. Ingurune fisikoa eta giza jarduera.
 - 2.1. Gure natur ingurunea: herriko, eskualdeko, Euskal Herriko eta erreferentziako estatuetakoko erliebea, klima, flora (autoktonoa eta aloktonoa) eta fauna.
 - 2.2. Desoreka ekologikoa.
 - 2.3. Klimaren, lurraren, garaieraren eta landarearen arteko erlazioa.
 - 2.4. Erliebea paisaiaren eraketan: mendiak, ibaiak, beste gorabehera geografiko batzuk... Ondorioak gizakia bizitzeko eretan. Paisaiaren aldaketa gizakiaren jardunaren ondorioz.
 - 2.5. Uraren zikloa. Uren arazketa eta kutsadura. Kontsumo arduratsua.
 - 2.6. Aire eta kutsadura atmosferikoa.
 - 2.7. Zerua: Eguzkiaren ibilbidea eta Lurraren mugimenduak, ilargi zikloa, planetak eta izarrak. Eklipseak.
 - 2.8. Materiaren ezaugarriak eta propietateak. Egoera-aldaketak. Oinarrizko magnitudeak.
 - 2.9. Aldaketa fisikoak eta aldaketa kimikoak: Presentzia bizitza arruntean eta ondorio praktikoak.
3. Izaki bizidunak.
 - 3.1. Animalien eta landareen morfologia. Elikadura, ugalketa eta lekualdatzea. Izaki bizidunen eta habitat naturalaren arteko erlazioa.
 - 3.2. Animalien eta landareen sailkapena.
 - 3.3. Izaki bizidunen funtzioak. Hazkundera eta garapena. Izaki bizigabeekiko desberdintasunak.
 - 3.4. Animaliak eta landareak oreka ekologikoan: Elikadura katea eta fotosintesia.

4. Gizarte ingurunea.
 - 4.1. Populazioa:
 - 4.1.1. Jaiotza tasa, heriotza tasa eta migrazio mugimenduak.
 - 4.1.2. Jendeztatze erak eta haien banaketa Euskal Herrian, Euskal Herriko eta erreferentziako estatuetako biztanle gune nagusiak.
 - 4.2. Gizarte erakundeak: familia ereduak, lagun taldea, ikastetxea, taldeak, auzoa.
 - 4.3. Lurralde antolakuntza: herria, eskualdea, lurralde historikoak, Euskal Herria hainbat estatutan sartuta. Europar Erkidegoa: osatzen duten herrialdeak.
 - 4.4. Giza jarduerak: Inguruan ohikoenak diren produkzio sektoreak, jarduera kultural eta artistikoak, gizarte- zein etxe-jarduerak, lanbideak, langabezia, aisia eta tarte libreak.
 - 4.5. Gizarte tentsioak: lanekoak, politikoak, etnikoak... Gatazkak konpontzeko bide demokratikoak.
 - 4.6. Kontsumoa.
5. Energia eta makinak.
 - 5.1. Gehien erabiltzen diren makinak eta aparatuak. Makina motak. Mugimenduak bihurtu eta transmititzen dituzten mekanismoak eta operadoreak.
 - 5.2. Energia-iturriak:
 - 5.2.1. Energia berriztagarriak eta ez berriztagarriak.
 - 5.2.2. Beroa: transmisioa eta ondorioak.
 - 5.2.3. Energia elektrikoa: Erabilpena etxeetan eta industrian. Zirkuitu elektrikoak.
 - 5.2.4. Argia: hedatzea.
 - 5.3. Euskal Herriko oinarrizko sektore industrialak: jatorria eta eboluzioa. Lehengaiak. Produkzio eta merkaturatze prozesuak. Industria birmoldaketa.
6. Informazioa, komunikazioa eta garraiobideak.
 - 6.1. Gizarteko eta pertsonen arteko komunikazio bideak.
 - 6.2. Informazioaren teknologia berriak:
 - 6.2.1. Ikus-entzunezkoak: ematen duten informazioaren ezaugarriak.
 - 6.2.2. Informatika: Informazioaren biltegitratzea, tratamendua eta hedapena.

- 6.3. Komunikazio bideak eta garraibideak. Euskal Herrian bide horiek guztiak errazten edo trabatzen dituzten baldintza geografikoak. Itsas portuak eta bide azpiegitura handiak: ikuspuntu kritikoa.
 - 6.4. Garraio publikoak.
 - 6.5. Bideko segurtasuna: Trafiko arauak eta seinaleak.
- 7. Aldaketa historikoak eta eguneroko bizitza.
 - 7.1. Oinarrizko denbora kontzeptuak: Aldi bereko gertaerak, lehenagokoak eta geroagokoak, elkarren segidakoak, aurrekariak..., iraupena.
 - 7.2. Denbora neurtzeko unitateak: eguna, astea, hilabetea, hamarraldia, mendea... Denbora erreferentzia, Kristo aurretik eta ondoren.
 - 7.3. Eguneroko bizitza moduen eboluzioa (etxebizitza, arropa, elikadura, familia eta gizarte antolaketa, lan egiteko erak...) gizarteetan, Historian barrena (gizarte primitiboak, antzinate klasikoa, Erdi Aroa, aro modernoak).
 - 7.4. Euskal Herriko ohiturak, tradizioak eta kultur adierazpideak, iraganekoak zein gaur egungoak.
 - 7.5. XX. eta XXI. mendeetako gertaera garrantzitsuenetara hurbiltzea. Gertaera, emakume eta gizon nabarmenak.
 - 8. Lurra eta gure garaia.
 - 8.1. Lur planeta: Kontinenteak eta itsasoak. Natur baliabideak. Ingurumenaren defentsa eta kontserbazioa.
 - 8.2. Lurreko arrazak eta herriak: Askotariko kulturak eta erakunde soziopolitikoak. Giza eskubideen errespetua.
 - 8.3. Aberastasunaren banaketa. Herrialde garatuak, garatzeko bidean daudenak eta azpigaratuak (Ipar-Hegoaren arteko desberdintasunak eta harremanak). Nazioarteko lankidetzak eta elkartasuna.
 - 8.4. Gatazka nagusiak. Bakea.

PROZEDURAZKOAK

1. Irizpideak eta gakoak landareak, animaliak, mineralak eta abar sailkatzeko eta serietzeko.
2. Hainbat irudikapen kartografikotan Euskal Herriko eta Europako geografia fisiko eta politikoaren elementu garrantzitsuen identifikazioa eta kokapena.
3. Espazio ezagunen eskalan egindako pertzepzioa eta irudikapena, hainbat irudikatze modu erabiliz (planoak, airetiko argazkiak eta beste bitarteko teknologiko batzuk). Ibilbideen planifikazioa.
4. Animalien eta landareen hazkundera behatzea eta erregistratzea.
5. Testu irakasgarriak eta argigarriak egitea, esperimentu, behaketa, prozesu eta abarren garapenaren eta emaitzen ahozko zein idatzizko komunikaziorako.
6. Laborategiko materiala erabiltzea izaki bizidunak, objektuak eta prestakinak ezagutu eta aztertzeko.
7. Hainbat iturritatik informazioa jasotzea egoerak eta arazoak aztertzeko.
8. Gizartearen funtzionamenduaren azterketa, hurbileko erakundeetako egoera jakinetan oinarrituta.
9. Teknikak erabiltzea denboran eta espazioan iraganeko gertaerak kokatzeko, eta gertaeren iraupena, aldiberekotasuna zein haien arteko lotura hautemateko.
10. Iturri historikoak, geografikoak, artistikoak... erabiltzea, eduki historikoa, geografikoa... duten sintesiak, iruzkinak, txostenak eta beste lan batzuk egiteko.
11. Irizpideak erabiltzea magnitudeak kalkulatu eta neurtzeko, unitateak eta neurketarako tresna egokia aukeratzea.
12. Fenomeno fisikoen behaketa eta deskribapena: destilazioa, iragazketa, lurruntzea, disoluzioa, solidotzea eta abar.

13. Beroa hautematea. Beroaren ondorioen behaketa sistematikoa: tenperatura igotzea, dilatazioa, egoera aldaketak.
14. Esperientzia batzuk planifikatu eta egitea, erabilera arrunteko materialen propietateak aztertzeke, eta ikusteko nola jokatzen duten argiaren, soinuaren, beroaren, hezetasunaren eta elektrizitatearen aurrean.
15. Arazo bat konpontzeko eginkizun edo baldintzaren bat betetzen duten egitura bakana eraikitzea, pieza modulatuak erabiliz (zubia, txirrista, eskailera eta abar).
16. Testuen tratamenduaren erabilera gero eta autonomoagoa (zuzenketa ortografikoa, orri doitzea edo irudiak txertatzea).
17. Elektroiman bat egitea.
18. Gorputza eta osasuna zaintzearekin zerikusia duten oinarrizko tekniken aplikazioa.
19. Arauei jarraitzea taldean lan egiteko, debateak antolatzeko eta aukeratutako gaien inguruan sor daitezkeen eztabaidetan parte hartzeko.
20. Giza gorputzaren organoen behaketa, kokapena eta identifikazioa.
21. Familiaren historia eta norberaren friso historikoa egitea.

JARRERAZKOAK

1. Errealitatea ezagutzeko eta ulertzeko jakin-mina eta interesa, eta egindako galderei erantzunak eta irtenbideak bilatzeko sormena.
2. Aintzat hartzea zientziak osasunari, giza ongizateari eta gizarte garapenari egindako ekarpena, baina kontuz, zuhur eta arretaz jokatzeko aurrerapen zientifiko-teknologikoen gizakientzat eta ingurumenarentzat ekar ditzaketen arriskuen eta kostuen aurrean.
3. Pentsamendu kritikoa behaketak, probak eta begi-bistako gauzak aztertzeko. Buru-malgutasuna aldaketak onartzeko, eta zalantzarekin batera bizitzeko
4. Norberaren lanean saiatua eta nekaezina izatea, zereginetan jarrera eraginkorra eta arduratsua erakustea, autokritikoa izatea, eta norberaren ahalmenean sinestea, autonomia eta autokontrolarekin, eta gozatuz.
5. Egindako lanetan txukuntasuna, garbitasuna eta ordena gogoko izatea.
6. Planifikazioari eta hausnarketari jarduteari baino balio handiagoa ematea.
7. Talde-lanerako prest agertzea, lankidetzak eta parte-hartze arduratsua izateko jarrera azalduta. Funtsezkoa da desberdintasunak errespetuarekin onartzea eta, elkarrizketetan zein eztabaidetan, geureak ez diren ideiekiko eta ekarpenekiko tolerantzia agertzea.
8. Zorroztasuna eta zehaztasuna lan esperimentalean eta landa lanetarako irteeretan, eta segurtasun zein higie arauetarako errespetua.
9. Hizkuntza zehaztasunez erabiltzea, eta aintzat hartzea argitasun eta ordena ohiturak, horien adierazpide guztietan.
10. Autoestimua eta norberaren gorputz nortasunaren onarpena, eta higie pertsonala, atsedena, elikadura osasungarria, aisialdiaren erabilpen egokia balioestea, eta bizitza molde osasungarriak izatea.

11. Arreta jartzea norberaren nortasunari. Nork bere burua ezagutzea, eta autoestimua.
12. Gure ingurune sozio-naturalaz gozatzea eta errespetatzea, eta hori kontserbatzeko zein hobetzeko jardueretan esku-hartze arduratsua izatearen aldeko jarrera.
13. Estereotipoak eta edonolako bereizkeria baztertzea, eta gainerakoekiko enpatia garatzea. Beste pertsona, herri, arraza, etnia... batzuek dituzten arazoekiko elkartasuna.
14. Euskal Herriko ondare historiko, artistiko, linguistiko eta naturala balioestea, ezagutu, gorde eta zaindu beharreko aberastasun partekatua den aldetik.
15. Euskal Herriko hizkuntz eta kultur askotarikotasunaren onarpena, kolektibitatea aberasten duen faktorea delako.
16. Migrazioek munduan eta gure inguruan duten garrantzia onartzea.
17. Publizitate teknika berriek kontsumoan duten eragina ezagutzea, eta jarrera kritikoa izatea haien aurrean.
18. Trebetasuna IKTen bidezko komunikazio, gizartekoitasun eta lankidetzarako, baina mendetasuna eragiteko duten ahalmenaz ohartzea.



ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Natur eta Gizarte Ingurunearen Ezaguera arloko ebaluazio irizpideak adierazle batzuk dira, ikasleek aurreikusitako gaitasun orokorrak zenbateraino ikasi dituzten neurtzeko eta egiaztatzeko modua ematen dutenak. Irizpideok, gainera, ikasleek egindako ezagutzazko, prozedurazko zein jarrerazko ikaskuntza prozesua adierazi, azaldu eta agerian jartzen dute.

Ebaluazio irizpide zabalak, irekiak eta globalizatzaileak proposatzen dira, arloaren ezaugarriei egokituak.

Ebaluazio prozesuan eraginkortasun handiagoa izateko, beharrezkoa da irakasleek irizpide horiek ikasleen hezkuntza testuingurura eta horiek murgilduta dauden hezkuntza prozesuaren berezitasunetara egokitzea, espezifikatzea eta zehaztea.

Ondoren zehazten diren ebaluazio irizpideek zerikusi zuzena dute aldi honetan arlo honetarako proposatutako gaitasun orokorrekin. Hau da, gaitasun orokor bakoitzari ebaluazio irizpide bat edo gehiago dagozkio, eta horiek aukera ematen dute neurtzeko zenbateraino ikasi den gaitasun orokor hori, hainbat edukiren ikasketaren bidez.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<p>1. Gorputzaren ezagutzatik eta aukeretatik zein mugetatik eratortzen diren ohitura osasungarriak izatea eta gorputza zaintzea, banakako desberdintasunekiko (adin, sexu, ezaugarri fisiko, izaera eta abarrekiko) onarpenean eta errespetuan oinarritutako jarrera agertuta, eta osasuna gizakiaren zein taldearen ondasuna dela ulertuta, pertsonarengan zein inguruan bizi baldintza osasuntsuak garatzeko ekarpen eraginkorra egiteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Giza gorputzaren bizi-funtzioak betetzearekin zerikusia duten organoak identifikatzen ditu, eta, sintoma ohikoenen bitartez, badaki haietako zein dagoen lesionatuta. • Osasuna eta eritasuna bereizten ditu, badaki zein ohituraren ondorio diren, eta horren arabera jokatzeko du. • Oinarritzko dieta osasuntsua planifikatzen du. • Higiene, atsedean eta ariketa fisikoetarako arauak aztertu eta lantzen ditu. • Banakoen desberdintasunekiko errespetu eta onarpen jarrerak erakusten ditu.
<p>2. Gizarte taldeen berezitasunak eta ezaugarriak ezagutzea, haien arteko desberdintasunak errespetatzea eta balioestea, eta errefusatzea horretan oinarritutako edozein bereizkeria mota, horietako kide izatea aintzat hartzeko, eta gainerako nortasun, kultura eta herriekiko errespetu jarrerak izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Badaki zein den familian, eskolan eta bizi den herri edo hirian dagoen antolaketa, eta haietako kideek betetzen dituzten zeregin batzuk identifikatzen ditu. • Hainbat gizarte taldetakoa izatea balioesten du, eta haien arteko desberdintasunak errespetatzen ditu. • Bereizkeriak errefusatzen ditu. • Bere herrialdean, bera kide den hainbat gizarte talderen oinarritzko ezaugarriak identifikatzen ditu, bai eta beste talde batzuenak ere. • Gainerako nortasun, kultura eta herriekiko errespetu jarrerak ditu.
<p>3. Talde jardueretan parte hartzea, jokaera eraikitzailea, arduratsua eta solidarioa agertuta, eta norberaren zein besteen ekarpenak balioestea helburu komunaren arabera, komunitateari ekarpen solidarioa egiteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Talde jardueretan esku hartzen du, eta era eraikitzailean, arduratsuan eta solidarioan jokatzeko du, eta ekarpenak balioesten ditu, bai bereak bai besterenak.

<p>4. Gatazka dagoela aitortzea, eta desberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldeen barruan aldaketa faktore gisa erabiltzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazka ezagutzen du, eta desberdintasunak gainditzeko tresnatzat hartzen du. • Gatazkei era demokratikoan eta enpatiarekin egiten die aurre. • Hitz egiteaz baliatzen da sor daitezkeen gatazkek konpontzeko.
<p>5. Norberaren nortasuna osatzea, eta bai gauzak lortzeko, bai ahalegintzeko, bai nork bere burua hobetzeko motibazioa sustatuko duten estrategiak izatea, gizaki autonomo eta sozial gisa garatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Banakoen edo taldeen arazokiko elkartasuna eta ulerberatasuna erakusten ditu. • Bere buruarekiko errespetu jarrerak ditu. • Bere burua motibatzen, ahalegintzeko eta bere mugak gainditzeko estrategiak ezagutzen ditu.
<p>6. Gizakiak ingurunean duen esku-hartzearen adierazpide batzuk aztertzea, eta era kritikoan ebaluatzea, oreka ekologikoa defendatzeko eta berreskuratzeko jarrera hartzeko eguneroko bizitzan, iraunkortasun eta kultur ondarearen kontserbazio parametroetan oinarrituta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ondare natural, historiko, kultural eta artistikoa identifikatu, balioetsi eta errespetatzen du, eta bere gain hartzen ditu haren kontserbazioak eta hobekuntzak dakartzaten ardurak. • Espazio geografikoen eta lurraldeen sorreran eta antolaketan gizartearen eta natur inguruneen artean gertatzen diren interakzioak deskribatzen ditu. • Argi eta ordenarekin hitz egiten du. • Eguneroko bizitzatik ateratako adibide batzuen bidez, pertsonen natur baliabideak (airea, lurra, ura, zuhaitzak eta abar) eta energia nagusiki nola erabiltzen dituzten identifikatzen du, eta lortutako abantailak eragindako desoreka ekologikoarekin alderatzen ditu.
<p>7. Inguru naturaleko elementu nagusiak identifikatzea, eta</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Landareak, animaliak eta objektuak identifikatu eta

<p>haien antolaketa, ezaugarriak eta interakzioak aztertzea, esparru gero eta konplexuagoen kontrolean aurrera egiteko.</p>	<p>deskribatzen ditu, baita herrialdeko paisaien ezaugarri nabarmenenak ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Meteorologia-fenomeno nagusiak ezagutzen ditu, haien adierazpide nabarmenenak identifikatzen ditu, eta urtaroen ezaugarriak ulertzen.
<p>8. Ingurune sozio-naturaleko elementuetan denboraren joanarekin gertatutako aldaketak eta transformazioak ezagutzea, eta aldaketa horien aldiberekotasun eta ondoriotasun erlazio batzuk ikertzea, kontzeptu horiek beste une historikoen ezaguerari aplikatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herriko eguneroko bizitzako alderdi bereizgarrien eta bai inguru fisikoan bai bizitzeko moduetan eta familiaren zein gizartearen antolaketan izan diren gertaera historiko eta aldaketa batzuen eboluzioa denboran antolatu eta deskribatzen du.
<p>9. Ingurune sozio-naturaleko eta kulturalako gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak interpretatzeko, adierazteko eta irudikatzeke kode zenbakizkoak, grafikoak, kartografikoak eta beste batzuk modu egokian erabiltzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ondo erabiltzen ditu kode grafikoak, kartografikoak, zenbakizkoak eta bestelakoak. • Ingurune sozio-naturaleko eta kulturalako gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak irudikatzen ditu. • Lanak txukun eta garbi aurkezten ditu.
<p>10. Material, substantzia eta objektu batzuen oinarrizko propietateen ezagutza erabiltzea, proiektu, gailu eta aparatu soilak planifikatu eta egiteko, alde zuzenetik ezarritako helburu batekin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Material, substantzia eta objektu batzuen oinarrizko propietateak deskribatzen ditu. • Ezaguera horietan oinarrituta, proiektuak, gailuak eta aparatu soilak planifikatu eta egiten ditu. • Gorputzek argiaren, elektrizitatearen, magnetismoaren, beroaren edo soinuaren aurrean nola jokatzen duten ikertzeko esperientziak planifikatu eta egiten ditu euskarri erabilerrazetan, eta energia iturri soilak erabiltzen ditu, baita mugimenduak bihurtzen edo transmititzen dituzten operadoreak ere.
<p>11. Informazioa bilatzeko eta tratatzeko estrategiak erabiltzea, aburuak formulatzea eta aburu horiek probatzea, irtenbide</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Inguruko elementu adierazgarriekin zerikusia duten arazo soilei heltzen die, hipotesiak planteatzen ditu,

<p>alternatiboak arretaz aztertzea eta norberaren ikaskuntza prozesuari buruz gogoeta egitea, inguruko elementu esanguratsuekin zerikusia duten zalantzak eta arazoak identifikatu, planteatu eta konpontzeko.</p>	<p>informazioa bilatzen du hainbat iturritan (zuzenak, liburuak, Internet...), lan egiteko plan bat ezartzen du, ondorioak ateratzen ditu eta bere txostena hainbat euskarritan aurkezten du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasketa prozesuaren beraren gainean, irtenbide alternatiboari buruz gogoeta egiten du, eta haiek arretaz aztertzen ditu.
<p>12. IKTak erabiltzen ikasteko eta ezagutzak partekatzeko tresna gisa, eta balioestea pertsonen bizi baldintzetan eta haien inguruan egindako ekarpena eta izandako eragina.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa Interneten bilatu, txosten bat egin eta euskarri digitalean ezagutarazten du.